

Irizarrek 6 autobus elektrikoren salmenta iragarri du Agir-eko garraio publikoaren jardunaldietan

Périgueux, 2015eko ekainak 24

Irizar Périgueuxn izango da ekainaren 24 eta 25ean izango diren garraio publikoaren gaineko jardunaldietan. Stand txiki bat izango du autobus elektrikoaren lerro estrategikoa, teknologia eta ezaugarriak erakusteko, ibilgailu hori baita Irizarrek operadoreei eskaintzen dien hirietako etorkizuneko autobusa.

Agir 2015 Jardunaldietako egitarauak krisiaren kontrako irtenbide aukerak eskaintzen ditu, zerbitzu ereduak areagotzeko, gastuak murrizteko eta ekonomizatzeko, zerbitzu publikoaren kalitatea galdu gabe. Jardunaldi hauetako egitarauak eraginkorrak direla frogatu duten irtenbideak erakusten ditu, soilak, berritzaileak eta sare guztientzat irisgarriak.

Egoera horretan eta ibilgailu honekin RTMk bi hilabetez egindako probetan izandako emaitzekin eta esperientzia onarekin Irizarrek iragarri nahi du **6 autobus saldu dizkiola** Centrale d'Achat du Transport Public- CATP erakundeari. Aurtengo urte bukaeran edo 2016 hasieran entregatuko zaizkio Marseillako RTMri

Ibilgailu hauek Marseillako linea jendetsuenetan ibiliko dira eta zoru baxu jarraitua dute, bi ate bikoitzekin eta ate nagusian arrapala elektrikoarekin. Barruan 77 pertsonarentzako tokia dute, 27 eserita, pnr 1 eta 49 zutik.

Nabarmentzekoa da, era berean, Irizarrek hitzarmena sinatu duela RATPekin (Parisko garraio Publiko enpresarik handiena), eta, beraz, Irizar Taldeko autobus elektrikoa Parisen probatu ahal izango da hasi berri duten proba aldiari.

Autobusa 2025 proiektuaren barnean kokatzen da. Parisko autobusen % 80 elektrikoak eta % 20 biogasezkoak izateko helburua du proiektuak. Baldintza pleguak hainbat ezaugarri eskatzen dizkio autobusari. Esaterako, ibilgailuak % 100 garbiak izatea, batez beste 90 bidaiarientzako tokia izatea eta 180 km-ko autonomia izatea gauean kotxe-tokian karga bakarria eginda.

Gainera, Irizarrek iragarri berri du hitzarmena sinatu duela Go Ahead London-ekin, Londresko autobus operadore handienarekin. Hitzarmenaren ondorioz bi Irizar i2e autobus elektriko egingo ditu harentzat eta uztail bukaeran jarriko ditu zirkulazioan Londresen. Marseillarako 6 autobus elektriko saldu izana ere iragarri du.

Autobus elektrikoak zirkulazio handiko bi lineatan ibiliko dira. Waterloo Station eta Victoria Station lotzen dituen 507 linean eta Waterloo geltokia London Bridge geltokiarekin lotzen duen 521 linean. Marseillan bezala, Irizarrek autobus eta autokar fabrikatzaile gisa duen esperientzia handia baliatu du bi bezeroen baldintza plegu zorrotzak betetzeko. Londresko autobusen barruko antolamendua oso zabala da, 26 eserlekurekin eta MUP lantzat plazarekin eta guztira 60 pertsonarentzako edukierarekin



Ibilgailuek Londresko estandar guztiak beteko dituzte floten kudeaketarako eta telemetriako sistema ontziratuetan

Ibilgailu horiek guztiak 2014an Europako beste hiri batzuetan entregatutakoei gehituko zaizkie.

Urrats horrekin Irizarrek erakutsi du ez bakarrik herrialde horietako merkatu, operadore eta araudietara egokitzeko gaitasun oso duela, baina, gainera, hiri mugikortasunean lider gisa posizionatzeko asmoa agertu du. Hirietako ingurumenaren iraunkortasun eta hobekuntzaren aldeko apustu argia da.